

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko irailaren 24 egunean egindako ohiko bileran hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, Laudion autoenplegua sustatzeko eta enpresak sortzea sustatzeko 2021eko diru-laguntzen deialdia onartu zen

Laudion autoenplegua sustatzeko eta enpresak sortzea sustatzeko 2021eko diru-laguntzen deialdia.

BDNS (Identif.): 585787

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/585787>).

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehenengoa. Xedea

Oinarri hauen xedea da Laudion enpresa berriak sortuz norberaren konturako lanpostu berriak sortzeko eta autoenplegua sustatzeko diru-laguntzen deialdia egitea.

Bigarrena. Onuradunak

Enpresek eskuratu ahalko dituzte atal honetan ezarritako onurak, zeinahi izanik ere horien izaera juridikoa, banakako enpresaburuak eta profesionalak barne.

Hirugarrena. Laudion autoenplegua sustatzeko eta enpresak sortzea pizteko 2020ko diru-laguntzen emakidaren oinarri arautzaileak onartu egin dira 2020ko urriaren 29ko 2136 zenbakia duen dekretuz eta argitaratu egin dira 2020ko azaroaren 9ko 127 zenbakia duen ALHAOn.

Laugarrena. Zenbatekoa

Ekonomi-zuzkidura bada 12.000 euro eta gastua babesten duen aurrekontuko diru saila bada Laudio Udaleko 2021eko udal aurrekontuko "Ekintzaileentzako diru-laguntzak" izeneko 1000-4331-481.01 partida.

Bosgarrena. Epea

Eskaerak aurkezteko epea hasiko oinarriak ALHAOn argitaratzen diren biharamunetik, eta zabalik egongo da hurrengo 30 baliodun egunetan zehar.

Laudio, 2021eko irailaren 28a

Alkate-udalburua

ANDER ANIBARRO MAESTRE